



#### IV. ERANSKINA/ANEXO IV ERREKLAMAZIOAK/RECLAMACIONES

**IZEN ABIZENAK: ARANTZAZU MARTINEZ ETXARRI.**

**POSTUAK:** Ikerketa eta berriztapen aplikatuaren proiektuak nazioarteko bihurtzeko dinamizatzailea, Ekimen ekintzailearen dinamizatzailea- "URRATSBAT" programa, Enpresei zerbitzuak emateko proiektuaren dinamizatzaile.

**ESKARIA:** Bere hautagaitza berrikustea. Hiru postutarako aurkeztu da hain zuzen:

Internazionalizaziorako lanpostua, Enpresei zerbitzuak eta Urrats bat. Hiru postu horietarako aurkeztu duen memoria antzerakoa dela esaten du, horregatik arrituta dago memorien arteko puntuazio tarte nabarmenagatik.

Internazionalizaziorako lanpostua: 2,7

Urratsbat: 2,05

Enpresa zerbitzuak: 0,5

**ERABAKIA:** 2019ko maiatzaren 15eko, Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko Zuzendariak ebatzitako lanbide heziketari aplikatutako ikerketa eta berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko zentroan (TKNIKA) 2019/2020 ikasturtean zehar zerbitzuak emateko zenbait lanpostu betetzeko deialdian, bere II.Eranskinen 4. Atalean ondorengoa jartzen du:

Memoria baloratzeko, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

1. Alderdi formalak.

**2. Edukia lanpostuaren eginkizunetara nola egokitzen den eta garapen orokorra.**

3. Erabilitako informazio-iturri anitzak.

4. Argitasuna eta konkretzia erabilitako oinarritzko kontzeptuetan.

Gainera III.Eranskinak memoriak bete beharreko funtzioei eta lanari buruzko edukia izan behar duela ezartzen du, atal hauek edukiaz:

1. Sarrera.

2. Aurrekariak eta esperientzia lanpostuaren eremuan.

3. Helburuak eta funtsezko jardura-ildoak.

4. Lanpostuaren gaitasun espezifikokoak eta teknikoak garatzea.

5. Metodologia eta lan-plana.

6. Erreferentzia teorikoak eta bibliografia.

Eskatzaileak bere erreklamazioan eskatu dituen hiru postuetan aurkeztutako memoriak oso antzerakoak direla onartzen du, nahiz eta bakoitzak postuari buruzko egokitutako edukia izan.



Balorazio Batzordeak memoria bete beharreko funtzioei eta lanari buruzko edukia izan behar duela kontutan izan du eta balorazio irizpideak 2019ko maiatzaren 15eko ebazpenaren I.Erantskinak ezarritako kompetentzia tekniko/espezifikoen arabera egin da.

Horregatik, hiru memorieta 2. Ataleko edukia (2. Aurrekariak eta esperientzia lanpostuaren eremuan.) ia berdina dela konturatu da Balorazio Batzordea. Atal horretan eskatzaileak internazionalizazio arloan izan dituen aurrekariak eta esperientzia azaltzen da. Atal honek zerikusia dauka Ikerketa eta berriztapen aplikatuaren proiektuak nazioarteko bihurtzeko dinamizatzailearen postuarekin, eta Ekimen ekintzailearen dinamizatzailea-“URRATSBAT “ programako kompetentzietan ere adierazten da. Baina Enpresei zerbitzuak emateko proiektuaren dinamizatzaileko postuan eduki honek ez dauka zerikusirik.

Memoriaren 3.Helburuak eta funtsezko jarduera-ildoen Atalaren edukari dagokionez, Enpresei zerbitzuak emateko proiektuaren dinamizatzaile postuan eskatzaileak internazionalizazioaren eremuaren barne dauden helburuak azpimarratzen ditu,baita (ETHAZI) metodologiak, eta sormena. Alor hauek ez daude postuaren kompetentzia espezifiko/teknikoetan. Gainera ez du postuaren kompetentziekin erlazioa duen helbururik adierazten .

4. Atalari buruz (4. Lanpostuaren gaitasun espezifikoak eta teknikoak garatzea.) Internazionalizazio osagaia mantentzen da nahiz eta eduki hau eskatzen denarekin erlazio zuzena ez izan. Eskatzaileak ez ditu postuaren kompetentzia espezifikoak eta teknikoak garatzen, baizik eta deialdian aipatutako kompetentzia espezifiko eta teknikoei buruzko bere gogo ona aipatzen du.

Enpresei zerbitzuak emateko proiektuaren dinamizatzaile postuko memoriaren 5. Atalaren edukia (5. Metodologia eta lan-plana.) orokorra da eta ez dauka erlazio berezirik postuaren funtzioekin. Beste memorieta, atal honen edukia postuaren funtzioekin lotzen du.

Azkenik, 6. Atalaren edukiak (6. Erreferentzia teorikoak eta bibliografia.) ez dauka Enpresei zerbitzuak emateko proiektuaren dinamizatzaile postuarekin erlaziorik. Hala ere, beste bi memorieta postu horien funtzioekin loturaren bat dago.

Horregatik eskari hau **EZ ONARTZEA** erabakitzen da.